

## Akta: tailerra eta hiritar paseoa

Jarduera: Eguneroko mugikortasunari buruzko tailerra eta hiria behatzeko ibilaldia Hondarribiko kaleetan zehar

Data: 2018ko azaroaren 17a

Azaldutakoak: 17 pertsona (2 erraztaileak barne)

<b>Adin tartea</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Denera</b>
12tik behera	4	1	5
13-17	-	1	1
18-64	3	4	7
65 edo gehiago	1	1	2
Denera	8	7	15

Azaroaren 17an, larunbata goizean hiritar paseoa burutu zen Hondarribian. Jarduera eguneroko mugikortasunari buruzko tailer batekin hasi zen, jarraian nola mugitzen garen eta aurkitzen ditugun arazoak kolektiboki aztertzeko kale, plaza eta parkeetan zehar ibilbide bat burutu zelarik.

Jarduera pertsona orori irekia zen, *Hondarribia mugitzen da* prozesuaren eta Mugikortasun Planaren idazketaren baitan emandakoa. Ez ziren ordezkari politikoak ez eta udal teknikariak gonbidatu, izan ere, bizilagunei, familiei eta herri eragileei zuzendutako jarduera baitzen.

Topaketa 11:00etan hasi zen Zuloaga Etxea Liburutegian, Kale Nagusia 8n. Toki honetan tailer txiki bat burutu eta jardueraren azalpena egin zen, eta ordu t'erdiko ibilbidea hasi zen, tartean mugikortasun eta espazio publikoari buruzko pertzepzio eta iritziak partekatzeko geldialdiekin. Jarduera umeentzat ere prestatu egin zen.

#### Eguneroko mugikortasunari buruzko tailerra



Ongi etorria eman ondoren gida-foileto bat ibilbidearen informazioa, eguneroko joan-etorrien taula bat eta galdetegi bat zeukan gida-foileto bat banatu zen. Partehartzaileek joan-etorrien taula eguneroko jardueren gaineko hausnarketa indibiduala egiteko erabili zuten, aldi berean ordutegia, zeregina, tokia eta joateko modua adieraziz. Galdetegia eguneroko joan-etorrietan aurkitzen diren zailtasunak, segurtasun-eza, erosotasun falta edo beste pertzepzioren bat identifikatzeko baliatu zen. Galderak erantzuteko zailtasunak zituenari lagundu egin zitzaion, kasuren batean galdetegia osatzeko talde txikiak.

Informazio kualitatiboa biltzeaz gain, tailerra baliagarria izan zen paseoaren gai nagusia ulertu eta eguneroko bizitzaren ikuspuntua ezartzeko.

## Hiria behatzeko ibilaldia



Behin tailerra bukatuta Hondarribiko kaleetan zehar bizilagun gazte zein helduekin ibiltzera atera ginen. Taldea Kale Nagusitik jaitsiz zumardiko aparkalekura eta erre kara abiatu zen. Eroskiko aparkalekutik eta GI-3440 errepideko errotontatik jarraitu zen lehenen, gero iparralderantz abiatuz Biteri eta Harresilanda kaleetatik. Bertatik Errebellin kaleko aparkalekura igo zen aurrerago Jaizkibel hiribidea zeharkatuz eta Guadalupeko Ama kalearekin lotzen duen plataforma bakarreko tartetik igaroz. Jaizkibel eta Harresilanda kaleko errotontatik ekialderantz biratu zen Alde Zaharra inguratuz San Kristobal plazaraino. Axular kaletik jarraituz ibilbidea Bidasoa pasealekuan amaitu zen.

Ibilbidean zehar zazpi geldialdi luze eta tarteko beste hainbat geldialdi labur egin ziren. Parte hartzaileak ibilaldian zehar gauzak komentatzen joan ziren, eta erraztaileak gauzak idazten, elkarrizketak grabatzen eta paseoa dinamizatzeko galderak egiten joan ziren. Ateratako gai batzuek ondoren aipatzen dira:

- Errepideak erosotasun eta segurtasunez gurutzatzeko zailtasunak.
- Hiri eremuaren erakargarritasuna landaredia, baratzak, umeen presentzia edota paisaiarengatik.
- Zenbait zoladuren egoera txarra, batik bat gurpildun aukietan edo haurren aukitxoetan pentsatuta.
- Espaloi estuegiak edo oztopodunak, zenbait kasutan espaloi eza.
- Autoen gehiegizko abiadura kale askotan.
- Oinezkoentzako denbora tarte berde laburregia duten semaforoak.
- Etenaldi eta itzulinguru garrantzitsuak oinezkoen ibilbideetan.
- Zenbait toki ilun edo gaez beldurra sortzen dutenak.

- Gaizki kokatutako oinezkoen pasabideak, oinezkoen ibilbide nagusiari jarraitasunik eman gabe.
- Gaizki kokatutako autobus geltokia.
- Espaloietan gaizki aparkatutako motor eta bizikletak, pertsona itsuentzako arazo larria eta deserosotasun orokor garrantzitsua dena.
- Gehiegizko trafikoa hirigunean eta trafikoa baretzeko neurrien beharra.
- Aparkaleku eskaintzak autoz behar baino gehiagotan iristera gonbidatzen du, oinezkoen eta txirrindularien baldintzen hobekuntza oztopatuz.
- Altzari eskasa eta desegokia, adibide gisa zenbait errepidetan jartzen diren farolak aipatuz.

Izandako partaideen aniztasuna azpimarratu behar da: umeak, pertsona edadetuak, pertsona itsu bat eta emakumezkoen gehiengoa. Hala ere, partaideek ibiltzeko zailtasuna duen pertsonaren baten falta aipatu dute. Aniztasun honek askotan ikusezinak diren gai osagarriak mahai gaineratu zituen, baita ideia eta iritzi ezberdinen kontrastea ere.

## Acta: taller y paseo ciudadano

Actividad: Taller de movilidad cotidiana y caminata de reconocimiento urbano por las calles de Hondarribia

Fecha: 17 de noviembre de 2018

Asistentes: 17 personas (incluidos los 2 facilitadores)

<b>Grupo de edad</b>	<b>Mujeres</b>	<b>Hombres</b>	<b>Total</b>
Menores de 12	4	1	5
13-17	-	1	1
18-64	3	4	7
65 o más	1	1	2
Total	8	7	15

El sábado 17 de noviembre por la mañana tuvo lugar un paseo ciudadano en Hondarribia. Esta actividad consistió en realizar un taller sobre movilidad cotidiana y un recorrido por las calles, plazas y parques para observar de forma colectiva cómo nos movemos y los problemas que encontramos.

Fue una actividad abierta en el marco del proceso *Hondarribia mugitzen da* y la redacción del Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Hondarribia. No se invitó a representantes políticos ni equipos técnicos, pues se trató de una actividad dirigida a vecinas, vecinos, familias y asociaciones.

El encuentro comenzó a las 11:00 en la Casa Zuloaga-Biblioteca situada en Kale Nagusia, 8. En este lugar se realizó un pequeño taller y explicación de la actividad, y desde ahí se comenzó el itinerario de una hora y media de duración con paradas para poner en común las percepciones y opiniones sobre la movilidad y el espacio público. La actividad estuvo preparada también para niños y niñas.

### Taller de movilidad cotidiana



Tras la bienvenida poco después de las 11:00h y la explicación de las actividades, se inició un taller de unos treinta minutos. En primer lugar se repartió un folleto-guía con la información del recorrido, una tabla de recorridos cotidianos y un cuestionario. Las personas participantes utilizaron la tabla de itinerarios cotidianos para reflexionar individualmente sobre las actividades realizadas en el día a día, anotando hora, tarea, con quién se realiza, lugar y modo de desplazamiento. El cuestionario sirvió para recoger información sobre dificultades encontradas en los desplazamientos cotidianos, puntos que se evitan por inseguridad y desagrado, y otras percepciones de las personas asistentes en relación a la movilidad y al espacio público. Se ayudó a quien encontraba problemas para responder las cuestiones, formando en algunos casos pequeños grupos para completarlo, y se comentaron en alto algunas apreciaciones que fueron surgiendo.

Además de recopilar información de tipo cualitativo, el taller fue útil para entender el tema central del paseo y situar la perspectiva en la vida cotidiana. Esto ayudaría a impulsar el debate y enfocar la observación a lo largo del paseo ciudadano desde este punto de vista.

### Caminata de reconocimiento urbano



Terminado el taller, se salió a caminar por las calles de Hondarribia, con vecinas y vecinos, menores y mayores. Desde la Casa Zuloaga-Biblioteca el grupo bajó por Kale Nagusia, saliendo del casco histórico hasta el aparcamiento de la alameda y el río. Se continuó por el aparcamiento del Eroski y la rotonda con la GI-3440, siguiendo hacia el norte por Biteri y Harresilanda Kalea, desde donde se subió al aparcamiento de Errebellin Kalea. Después se cruzó Jaizkibel Hiribidea, pasando también por el tramo de plataforma única que conecta con Guadalupeko Ama Kalea. Desde la rotonda de Jaizkibel y Harresilanda Kalea, junto a la puerta de San Nicolás, se giró hacia el este, rodeando el casco histórico hasta la plaza de San Kristobal. Siguiendo por Axular Kalea, el recorrido finalizó en el paseo de Bidasoa.

En el recorrido se realizaron siete paradas largas y pequeñas paradas intermedias. Las personas participantes fueron hablando de manera informal mientras caminaban entre las paradas, y el equipo facilitador fue tomando nota, grabando conversaciones o planteando preguntas para dinamizar el paseo. El contenido de las conversaciones, por tanto, fue aportado casi únicamente por quienes participaron en el paseo. Algunos de los temas de conversación fueron:

- Dificultades para cruzar vías rodadas con comodidad y seguridad.
- Atractivo del entorno urbano por la vegetación, las huertas, la presencia de niños y niñas o el paisaje en general.
- Mal estado de algunos pavimentos, especialmente pensando en sillas de ruedas y carritos de bebé.
- Aceras residuales muy estrechas y con obstáculos, ocasionalmente aceras inexistentes.

- Velocidad excesiva de los coches en muchas vías.
- Semáforos con poco tiempo de verde.
- Importantes discontinuidades y rodeos en los itinerarios peatonales.
- Algunos lugares oscuros o que dan miedo por la noche.
- Pasos peatonales mal ubicados, sin dar continuidad al itinerario peatonal principal.
- Parada de autobús mal ubicada.
- Motos y bicis mal aparcadas en las aceras, lo que es un gran problema para invidentes y una incomodidad en general.
- Exceso de tráfico en el centro urbano, comentándose la posibilidad de aparcamientos disuasorios o en todo caso la necesidad de calmado de tráfico en el núcleo urbano.
- La oferta de aparcamiento también induce el venir en coche más de lo necesario y compite con la mejora para peatones y ciclistas.
- Mobiliario escaso o inadecuado, como las farolas de las que se ponen en carretera, que no son adecuadas para el entorno urbano.

Cabe destacar la variedad de participantes, contando con niñas, niños, personas mayores, una persona invidente y una mayoría de mujeres. Aun así, las personas participantes echaron en falta la asistencia de personas con discapacidad motora. Esta diversidad facilitó la observación de aspectos complementarios o invisibles y el contraste de posiciones e ideas diferentes.